




500 LAGUNEK ERANTZUN ZIOTEN LARRAMENDI BAZKUNAREN DEIALDIARI, EUSKARAREN ALDEKO EKIMEN DOTOREA OSATUZ

Aurreikuspen onenak gaituta, Andoaindik eta inguruko herrietatik hurbildutako ehunka lagun elkartu ziren Goikoplazan. / 8-9

Greba Orokorra deitu dute, ostegunerako

Gehiengoa duten sindikatuek eta gizarte eragile ezberdinek antolatu dute, "Lan, pentsio, bizitza duina" izenburupean. Eskualdeko enpresa batzorde askok bat egin dute / 7



Herriko inbertsioetan eragiteko parte hartze prozesua zabalik izango da Urnietan, igandera arte / 11



Mikel Iturria txirrindulariak denboraldi berriari ekingo dio, kolore laranja soinean / 12



Kantazaun kantu kalejira eta Santa Agedako kantu erronda, hitzordu bikoitza Urnietan / 15



Donostiako Alde Zaharrean bizi bada ere, tarteka sorteria eta familia bisitatzera hurbildu ohi da Xabier Arberas Ezama. AIURRI

Xabier Lasa ANDOAIN

Xabier Arberas Ezama andoaindarra 1978an Donostiara bizitzera joan zen, Alde Zaharrera hain zuzen. Gizarte mugimenduetan jardun izan zuen gazte-gaztetatik, batik bat LAB sindikatuan. Eta erretiroa hartuz geroztik, auzokideen kezkekin bat eginda dabil. 2012an, Parte Zaharrean Bizi Auzo Elkartearen sorreran parte hartu zuen, bertakoen bizi baldintzak hobetzeko asmoz. Oso kritiko agertzen da, auzo horrek bizi duen errealitatearen gainean: "Parke tematiko bilakatu dute. Jada ez da auzo bat, turistentzako atrakzio hutsa baizik".

Argi mintzo da Parte Zaharri edo Alde Zaharri buruz diagnosis eskatzen zaionean: "Urte asko dira Parte Zaharra etengabeko gentrifikazio eta turistifikazio prozesu batean murgilduta dagoela. Prozesu hori, ordea, ez da berezkoa, ezta ha-

"Donostiako alde zaharra parke tematiko bilakatu dute"

XABIER ARBERAS EZAMA DONOSTIAKO ALDE ZAHARREKO BIZI AUZO ELKARTEKO KIDEA Andoaindarra Donostiako Alde Zaharreko gizarte bizitzan parte hartze aktiboa izaten ari da. Hiriguneak bizi duen gentrifikazioa salatzen dihardu, auzo elkartearen bitartez

labearrezkoa ere: nahitako estrategia jakin eta planifikatu baten emaitza da. Zilegitasun eta kontrol demokratiko formalari itzuri egiten dioten lobbiek bulztatu eta erakunde publikoek, enpresa pribatuek, hedabideek eta gizarte zibileko kide batzuek bideratu dituzten politiken ondorioa da".

Azalpen handiegirik behar ez duen turistifikazioaren kontzeptuarekin batera, gentrifikazioa da Arberasek aipatu duen bigarren fenomeno soziala. Azken aldian, Bartzelona, Venecia eta Europako beste zenbait hiri arras turistikoaren eskutik ari da zabal-tzen kontzeptu hori.

Auzo edo giza komunitate batean gertatzen den fenomenoa da gentrifikazioa, kateatuta doan prozesua: diru-sarrera gehiago duten pertsona edo talde ekonomikoek ondasun higiezinak (lursailak, etxeak, orubeak...) erosten dituzte diru-sarrera gutxiago duten pertsonez osatutako auzo batean; negozio eta denda berriak irekitzen dira, eta oraindik diru gehiago duen jende gehiago erakartzen du horrek; lehendik auzoan bizi ziren lagunek ezin diote alokairuari, etxebizitzaren prezioen garestitzeari, eta abarri eutsi, eta ondorioz, auzotik alde egin behar izaten dute.

Diagnosi larri horretara iristeko elkarteak urtetako lanketa egin behar izan duela adierazi du Arberasek. "Pertzepzio ezkor bat bageneukan, eta horrexegatik ikusi genuen elkartzeko beharra. Auzoaren errealitatea eza-gutzea izan da urtetan egin dugun lana. Sintomatikoa izan zen hasieran gertutakoa: udaleko sustapen sailera joan, eta datuak eskatzen hasita, ohartu ginen Parte Zaharra erdigunean kokatzen dutela hiri plangintzatan. Esate batera, Askatasunaren Etorbidearekin batera kokatzen gaituztela. Egia da Donostia historikoki itsasora begira egon dela, baina aldi berean, Parte Zaharrak badu nortasun berezkoa, arrantzarekin izan dituen lotura historiko eta kulturalak direla medio. Kontua da, inongo laguntzarik gabe, Parte Zahararren argazkia osatzen joan garela, datuak bilduz eta kontrastatuz".

Ilbilde horretan, auzoak eta auzotarrek bizitzen segi ahal izateko tertziarizazio eta merkantilizazio fenomenoek aurre egiteko premia dagoela ikusi dute. "Hainbat egoera salatu izan

ditugu: etxebizitza sozial eta alokairukoa sustatzeko politika aktiborik ez egotea; turismoaren eta aisiaren inbasioa; gure intimitatea urratzea; zaratak eta atsedetik ezak eragindako osasun arazoak; ekipamendu falta; espazio publikoaren pribatizazioa eta neurritz gaindiko merkataritza ustiapena; auzo nortasunaren eta, bereziki, euskal kulturaren eta euskararen ahultasuna...”.

Ikuspegi hori auzotarrengana hurbiltzen aritu dira katalizatzailearen eginkizuna bete nahian, “bertan bizi garen guztiak kaltekuak gara. Alarma guztiak piztuta daude, eta politika, gizarte, ekonomia eta kultura mailako eragileok bildu beharra daukagu. Ez gaudela prest halako eraso bortitza jasateko elkarrekin adierazteko, eta zer motatako auzoan bizi nahi dugun erabakitze”.

2004an Bartzelonan egin zen Kulturen Foro Unibertsalean, azaleratzen ari diren giza eskubide berrien adierazpen unibertsala nola adostu zuten gogoraz du Arberasek. “Eskubide horien artean *Hirirako Eskubidea* dago. Hots, auzokideek, auzo jakin batean bizi garenek, gure komunitateen garapen prozesuaren berri izateko eta prozesu horretan parte hartzeko dugun eskubidea da. Eskubide hori ez da betetzen, ordea, Parte Zaharrean, ezta Donostian ere, oro har”.

2017an, Parte Zaharrean bizitzeko eskubidearen aldeko manifestua plazaratu zuen Bizi Auzo Elkarteak. “Udal gobernuari jarrerara goitiki behera aldatzeko eskatu genion, alda zitzala arautegiak auzoan bizi ahal izatea bermatzeko. Orobat, gure komunitatearen garapenean modu aktiboan parte hartu ahal izatea”.

Gauzak lehengo bidetik doazela gaineratu Arberasek. “2019an legegintzaldi berria hasi zenez geroztik, gentrifikazioak eta turistifikazioak hedatzen segitzen dute, eta Donostiako Udalak eragile aktibo dihardu prozesu horretan. Teorian badira arau eta legeak, baina Udalak Parte Zaharrari dagokionez bideratzen duen politika pasibitatean eta tolerantzian oinarritzen da, eta are okerragoa dena, espazio publikoaren neurritz gaindiko ustiapena sustatzean. Udal gobernuak argi eta garbi babesten ditu jabegoa, higiezinaren susta-



Gizarte bizitzan parte hartze aktiboa izaten ari da Arberas andoaindarra. AIURRI

Datu adierazgarriak

Donostiako Parte Zaharreko Auzo elkarteak datu adierazgarriak eskaini ditu:

- 2004 eta 2017 bitartean, biztanleria %8,9 jaitsi da. 2004an 6.401 biztanle ziren, 2017an, 5.832. Aurreikuspenen arabera, 5.400 biztanle inguru geldituko dira 10 urte barru (-%7).
- Gazteek auzotik kanpora jo beharra dute emantzipatu nahi badute, eta biztanleria zahartzen ari da. Biztanleen herenak baino gehiagok 60 urte baino gehiago dituzte. %9,36k dituzte 80 urtetik gora. Emakumeak, 65 urte edo gehiago dituzten biztanleen %63,7a dira, eta 85 urte edo gehiago dituzten biztanleen %78,5a.
- 100 biztanleko 4,32 taberna eta jatetxe daude.
- 340 etxebizitza daude erabili gabe geldituz; 452 etxebizitza potentzialki huts.
- 190 etxebizitza turistiko, 62 pentsio, 3 hotel, eta beste 2, eraikitzen. Turismoarako plazen kopurua auzoko biztanleen kopuruaren %20tik gorakoa da.

pena, inbertsio funtsak, frankiziak eta abarrak. Eragile ekonomiko horiek guztiak baliabide ugari mobilizatzen dituzte, espekulazioaren eta presioaren bidez, legea bera behartuz edo hari entzurgor eginez, kasu askotan”. Arberasek argi dauka halako estrategia global moduko bat ezarri dela “hiria ekonomia eta merkaturaren zerbitzura jartzeko, eta ez pertsonen zerbitzura”.

Turismoa, komeni ala ez

Parte Zaharrean Bizi Auzo Elkarteak kideak kontziente dira euren auzoak bizi duena arazoaren izebergaren punta besterik ez dela, “erraza baita arazoaren dimentsioa ikustea gurean. Baina, egia esan, globala da arazoa”. Ikuspegi horri jarraituz, Arberasek auzitan jartzen du azken urtetan erakunde publikoek estrategikotzat jo izana turismoari loturiko sektore ekonomi-

koa. “Herri baten garapenean ekar ditzakeen onura eta kalteen azterketa serioa falta da. Adibidez, industriagune bat planteatzen denean, udalerrri batek ez dio onespina itsu-itsuan ematen, ez behintzat alde aurretik beharrezkoak diren azterketak egin gabe ingurugiroan e.a. arloetan, eta kontuan hartu gabe zenbateko eragina eduki dezakeen ekonomikoki, sozialki...”. Turismoa estrategikotzat hartzeko edo ez hartzeko orduan, tokian-tokian begiratzearen aldeko da. Landa guneak aipatzen ditu konparazio batera: “Tokian tokiko garapenearen ikuspegitik, langabezia eta despopulazioa bizi dituen nekazar giroko komunitate baten zatikomenigarria izan daiteke. Baina kontrakoa ondorioztatzea ere gerta liteke. Alegia, eredu hori ez zaigula komeni, energia kontsumitzailea eta kutsatzailea delako, baldintza prekarioko lanpostuen eragilea delako, gazteria sektore horri erantzungo dion baldintza kaskarreko lanpostuetara bideratzen duelako eta sektore produktiboan formatutako gaztedia emigratziora bidaltzen duelako...”.

Ipar Euskal Herriko ereduak

Azken hamarkadatan Iparralden ekonomikoki, demografikoki, kulturalki... nolako bidea hartu den ikustea aski da Arberasentzat, salatzen ari denaz jabetzeko. “Iparralden ez da ekoizpen sistema garatu, bertako balio naturalak (landa-guneak, itsasoa...) 3. sektorean agintzen duten ekimen pribatuaren (negozio eta inbertsio-taldeak, etxebizitza-agentziak...) esku utzi dira. Turismoaren etekin ekonomikoei begira egin dira inbertsio handiak, eta azkenean, frantziar estatuko aberatsen lurralde bilakatu da. Bertako biztanleria zati nabarmen baten bizi kalitatearen kalterako prozesua izan da. Adibidez, bertako baserritarrei lur-sailen garestitzearekin egundoko zailtasunak sortu zaizkie. Gazteei, berriz, honako alternatiba geratu zaie: bertan zerbitzuak eskaintzen dieten lan prekarioei heltzea, edo, emigratzea”.

"DONOSTIA MERKATUAREN ZERBITZURA DAGO, ETA EZ PERTSONEN ZERBITZURA"

Ansorenaren "Requiem" deiadarra

Zer esana eman du Joxe Inazio Ansorena musikariak *Berria* egunkarian 2020ko urtarrilaren 17an argitaratu berri duen artikulua, “Donostiako Alde Zaharra: *requiem*” izenburupean. Panorama iluna marrazten du, Alde Zaharrean bizi den auzotar baten ikuspegitik. Zer pentsatua eragiten duten hainbat pasarte betetako artikulua luzea da berea, eta hara horietako batean zer dioen, Arberasek aipatzen duen parke tematikoaren ideiatik jotzen duena: “(...) Donostiako Parte Zaharra turismoaren birusak gripatuta dago aspaldi honetan. Eta ondorioz, biztanleak gaixorik, larri. Zer kontatuko zuen gure alkateak Madrilén Klima aldagetaren batzarrean? Han erakutsi omen zuen Donostiako plan berezia, zein da? Auzo honetan zabor eta zarata guztia biltzea, biztanleak uxatzea, desmasa guztiak egiteko libertatea ematea? Horrela besteetan lasaitasunez biziko dira? Antxoak bagina, biomasa aztertuko lukete eta arrantzarako debekua aginduko; hartz panda bagina, babestu egingo gintuzkete, neurri benetan eraginkorrak erabakiko, isun benetakoak jarriko... Auzo soilak gara ordea. Ordezko asko daude beste barrioetan ere. Irudipena dut gure auzo honetatik biztanleak bota nahi gaituztela. Hobeto moldatuko lirateke berrehun bat figurante baleude. Gainera, horrek lanpostuak sortuko lituzke...”.

"NEURRIZ GAINDIKO USTIAPENA SUSTATZEN DA PARTE ZAHARREKO ESPAZIO PUBLIKOAN"

HAU ERE BADUGU!

**Egunean behin
lehiaketaren itzulera**

Tribial estiloko galdera-erantzunen jokoa da Egunean Behin, eta lehen bi denboraldietan milaka erabiltzaileen arreta bereganatzea lortu dute. Urtarrilean atsedean hartu eta gero, datorren otsailaren 3an ekingo diote berriro. Oraindik jokoa ezagutzen ez duenarentzat, IOS eta Android plataformetara egokitutako APP bat da. Egileek bikain deskribatu zuten jokoaren mekanika: "Egunean behin partida bakarra jokatzeko aukera izango da. 10 galdera erantzun beharko dituzu, ahalik eta azkarren. Zenbat eta gehiago asmatu, zenbat eta azkarrago asmatu, hobeto!". Adi, beraz, datorren asteari.

#U30 Grebaren eragina Aiurri astekarian

Astekariko lantaldeak edizioaren ekoizpena egun batean aurreratu du. Banaketaren zati handi bat asteazkenarekin egingo da, eta greba egunean ez da banaketa lanik egingo. Banaketaren jarraipena ostiralarekin egingo da.

"Aiurri.eus guneko komunitatea atala indartzen ari da"

OLATZ LASA AIURRI ASTEKARIKO ETA WEBGUNEKO LANTALDEKO KIDEA

Aiurri astekariaren webgune berriak aukera ugari eskaintzen ditu. Erredakziotik "Komunitatea" atala indartzeko ahalegin berezia egiten ari dira

Erredakzioa ANDOAIN

Martxoan urte bat beteko da Aiurri.eus webgune berria zabaldu zenetik. Zein abantaila ditu webgune berriak?

Bisualagoa da, albisteak jaso eta irakurtzeko erakargarritasun handikoa. Edukiak prestatzeko eta sarean partekatzeko aukera hobeak ditu, eta bilaketak egiteko hobekuntza gehiago ditu.

Tokikom tokiko hedabideen federazioak plataforma digital bateratua garatzeko lan handia egin du, Codesyntax enpresarekin batera. Azken urtean, Beterri-Buruntzako Kronika, Noaua eta Txintxarri hedabideekin batera, Aiurri plataforma horretara batu da.

Editore modura, oso pozik gaude tresna berriarekin.

Aukera ugari eskaintzen ditu webgune berriak, denborarekin garatzen joango garenak. Besteak beste, parte hartzeko eta herritarrei hitza emateko aukera zabalagoak eskaintzen ditu aiurri.eus webgune berriak.

Parte hartzea aipatu duzunez, komunitatea atala indartzen ari da. Zu zeu zara atal horren dinamizatzailea, gainera.



Olatz Lasa Aiurriko kazetaria. AIURRI

Lehenik eta behin eskualdeko ikastetxeetara jo genuen.

Euren atala sortu eta albisteak txertatzeko oinarritzko ikastaroa eskaini genien, eta gaur gaurkoz atal hori ondo baliatzen ari dira Urnietako Salesiar ikastetxea edota Egape ikastola.

Zer moduzkoa izan da hezitzailearen lana?

Ikastetxeetan oso ondo hartu dute ekimena, eta parte hartzen ari direnek neurria oso ondo hartu diotela esan genezake. Mekanika antzekoa

da, kasu guztietan. Albisteak lantzen dira bertatik: izenburua, sarrera eta testua norberak idazten du eta albiste edo post horri argazkiak edo bideoak eransteko aukera dago. Komunitatea atalean, ondorioz, erabiltzaile bakoitzaren edukiekin azpi webgune modukoak sortzen dira. Aipagai izan ditudan ikastetxeen kasuan, esaterako, eurek idatzitako albiste guztiak atal propio modura ikusteko aukera dago.

Erraza al da komunitatea atala kudeatzea?

Bai. Minutu gutxian neurria hartzeko modukoa. Erabiltzaileen albiste jarioari erreparatzea da, onena. Azken hilabeteetan "Komunitatea" atala indartzen ari baita. Eta hori soilik erabiltzaileen poderioz gertatzen da.

Idazten hasteko erabiltzaile bakoitzari erabiltzaile profil bat sortzen diogu, izena eta pasa-hitzarekin. Albisteak landuta, webgunean berehala argiratzen da. Ondoren, erabiltzaile bakoitzak bere sareetan partekatzeko aukera dauka. Aiurrik bere aldetik hori bera egiten du.

Webgunean erakustez gain, komunitateko eduki bakoitzak gure Twitter eta Facebook kontuetatik zabaltzen ditugu. Gure hartzailegoarengana iristeko leiho berria eskaintzen diogu, beraz, komunitateko partaideari. **Hainbat gizarte eragileek ere aukera hori baliatu dute.**

Halaxe da. Larramendi Bazkuna eta Mintzalagunak parte hartze aktiboa izaten ari dira. Baita Aiztondoko beste zenbait eragile ere. Talde guztiei zabalik gaude.

Zer egin behar da, beraz, parte hartzeko?

Edozein giza taldek parte har dezake. Andoain@aiurri.eus emailera idatz dezatela, eta eurekin jarriko gara harremanetan.



**Telegram erabiltzailea al zara?
"Aiurri Andoain" kanala bila
ezazu, eta jarrai gaitzazu**

Andoaingo albisteen jarraipena errazteko aukera.

ALBISTE BERRI ON, IRAKURLE!



www.aiurri.eus | twitter | facebook | instagram | telegram

KOMIKIA

GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA



POSTONTZIA

IPAR HAIZEA PLATAFORMA ANDOAIN

Andoaingo ituna: Atxikimenduak

Irailean udalean ordezkariak duten alderdi politiko guztiei aurkeztu genien Ipar Haizeatik idatzi dugun dokumentua, Andoaingo hondakinen kudeaketa eta gaikako bilketa hobetzen segitzeko asmoz.

Andoaingo Itunean, beste kontu batzuen artean, poltsa konpostagarriak banatzeko 2 makinak instalazioa burutzea (egungo banaketa ordutegiak zabaltzeko asmoz), edukiontzi gris eta marroi guztiei pedalak edo antzeko mekanismoak ezartzea, irisgarritasuna errazteko, komertzio eta ostalaritza establezimenduei zuzenean biltzen zaizkien frakzioak gehitzea, %70eko gaikako bilketara ailegatzea gutxienez urte amaierarako eta maila horretatik ez jaitea, landa eremuko edukiontzi guneak osatzea eta bertan ere edukiontzi gris txipdunak ezartzea, zakarrontzi selektiboak zabaltzen jarraitzea, hondakinen sortzez besteko ordainketaren ezarpena aztertzea... aipatzen ditugu.

Hala ere, ekarpenetara ireki genuen txostena, ahalik eta osatuena eta parte hartzaileena izan dadin. Berriki, gainera (duela pare bat aste, gutxigorabehera)

herriko eragile zein kolektiboei zabaldu diegu atxikimenduak emateko tarte, Andoaingo Ituna andoaindar guztiona delako. Atxikimenduak emateko mezua Facebookeko Messengerretik nahiz Ipar Haizearen korreo elektronikotik bidali genien. Bertan ipini genuen atxikitze eskaeraren mezua nahiz Andoaingo Itunaren informazioa. Hala eta guztiz ere, kolektibo/eragileren batek informazio gehigarria behar badu, ez badute mezurik jaso eta atxikitze asmoa badute, zalantza bat balute etab. andoainparhaizea@gmail.com, Ipar Haizeako Twitterrean mezu zuzen bat bidali edota Facebookeko Messengerretik idatzi besterik ez dute egin behar. Ipini dugun epea otsailaren 10ean amaituko litzateke.

Denon artean Andoain jasagarriago eta hobe baterantz!

'ANDOAINGO ITUNEAN' GAIKAKO BILKETA HOBETZEN SEGITZEKO PROPOSAMENAK EGITEN DIRA



“Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza gradu DUAleko gure ikasleek unibertsitatean ez ezik, enpresa batean ere ikasten dute 1. mailatik 4. mailara arte”



Estibaliz Hernandez (Twitter: @estihe) andoaindarra, Mondragon Unibertsitateko Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritzako Gradu Dual-aren koordinatzailea eta ikertzailea da. 2018tik Europa mailan, RESER sarearen lehendakari ordea da, zerbitzu eta berrikuntzaren inguruko sare aitzindaria.

Enpresak zuzentzea eta kudeaketa gaur egun badu etorkizunik?

Enpresak giza-eraren agente dinamizatzaileak dira, operatzaile, lana eta giza-eraren ekonomia eta soziala ekartzen dute lankidetasun. Erakunde publiko eta pribatuak kudeatzeko pertsonak behar dira. Giza-eraren aldatzen doa, eta enpresa-erakundeak, oronka berriak auzo ogitiko, eraldatu behar dira. Eraldaketaren oinarria enpresak eta erakundeak kudeatzen dituzten pertsonak dira, beraz, etorkizuna begira gestio alorari profil trebatuak beharrezkoak dira.

Zer profil eskatzen dituzte gaur egun enpresak zuzendaritzan eta kudeaketan lan egiteko?

Gaur egun, edozein profesionalak bi kompetentzia mota garatu behar ditu.

Alde batetik kompetentzia teknikoak: marketa, finantzak, teknologia, komunikazioa, datuen analisia, industria 4.0, etab. Beste aldetik, enpresetan gero eta garrantzi gehiago ematen zaio soft skills edo zeharkako kompetentziari, hau da, pertsonari lotutako gaitasunak: arazoak ebazte, taldean lan egin, lidetza, autonomia, erresiliencia, beste kulturak pertsonen harrimank sustatzea, etab.

Zer eskaintzen du Dual ereduak testuinguru honetan?

Dual ereduak ikasteko era ezberdin bat eskaintzen dio ikasleari, bere curriculumak aberastuz, gradua bukatzearen lau urteko lan esperientzia izango duela. Gure ikasleek 1. mailatik 4. mailara arte enpresan eta unibertsitatean ikasten dute. Prozesu hau enpresako mentoreen eta Enpresagintza Fakultateko tutoreen

arteon gidatzen da, ikaslearen garapena bermatuz, bai arlo teknikoan bai arlo pertsonalean ere.

Nazioarteko esperientzia beharrezkoa ikusten duzu arlo honetan?

Bai, nazioarteko esperientzia nabarmen izan behar du ikasleak. Gure kasuan, kurso bakoitzaren atzeriko esperientzia ezberdinak barmatzen ditugu: 1. mailan MONDRAGON Korporazioak Europako zehar enpresak bisitatzea duaz gure ikasleak, 2. mailan inter-campus eronka bat dago, atzeriko unibertsitateekin batera, 3. mailan Asian edota Amerikako herrialde batean egonaldi luze bat egiten dute, eta 4. mailan gradu bukatzearen proiektua atzeriko enpresa batean garatzeko aukera dute, seilteko osan zehar.

www.mondragon.edu/prest

"Andoain elkarlanean" ekimena aurkeztu dute

PSE-EEK eta EAJK osatutako udal gobernuak "Andoain Elkarlanean" herritarren partaidetzarako dinamika aurkeztu zuen urtarrilaren 24an. Datorren otsailaren 10etik 21era bitartean sei bilera antolatuko dituzte Andoaingo auzoetan

Xabier Lasa ANDOAIN

Aldi berean, 2019-2023 agintaldian garatzeko 65 neurri aurkeztu zituen. Maider Lainez Andoaingo alkatea eta Mari Jose izagirre alkate-ordea izan ziren ekimenaren eta neurrien bozeramaileak. "Andoain Elkarlanean" dinamika dagokionez, "Andoaindar ezberdinen artean, gizartearekin partekatutako lanean" oinarritutako filosofia nagusi dela aldarrikatu zuen Lainezek. Gehitu zuenez, "Herritarren partaidetzarako, gobernu onerako eta gardentasunerako dinamika berria da, andoaindarrekin norabide biko komunikazio mekanismoak ezartzeko, martxan jarritako jardueren edo hartutako konpromisoen jarraipena egiteko, eta horien betetze-mailari buruzko datuak emateko".

"Andoain Elkarlanean" ekimena praktikara eramanez, otsailaren 10etik 21era bitartean sei bilera egingo dituzte auzoz auzo. Bilera horietan legegintzaldiko plana eta udalak bultzatu nahi dituen jarduerak ezagutaraziko dituzte.

Lainezek eta Izagirrek adierazi zuten, otsailaren hasieran eskuorri bat etxetik banatu dute, "Andoain Elkarlanean" ekimena eta neurri horiei buruzko informazioa biltzen duena.

65 neurri zehatz

2019-2023 agintaldian zehar udalak bultzatu nahi dituen jarduerak 65 neurri zehatzera eraman nahi dituzte. Guztien artean, hona nabarmenenak:

- Udalerriko argiztapena hobetzea, energia eraginkortasunerako eta jasangarritasunerako neurriak ezarri.
- Beterri Buruntza Eskualdeko Garapen Agentzia sortzea.
- Gaikako bilketan neurri zehatzak ezartzea, birziklatze tasa hobetzeko.



Mari Jose Izagirre alkate-ordea, eta Maider Lainez alkatea. AIURRI

- Egunekeo Arretarako Zentroa martxan jartzea.
- Liburutegi berria eraikitzeke proiektua martxan jartzea.
- Erakundeekin elkarlanean aritzea Leitzaran parke natural izendatzeko.
- Kultur Kontseilua martxan jartzea, kultur taldeekin batera, sarea sortuz eta elkarrekin programak sustatuz.
- Gazteria Plana garatzea, gazteen Kontseilua sortzea, eta Gazte-gaua eta neguko musika jaialdia sustatzea.
- Komun publiko gehiago jartzea Karrikan eta Aranzategin.

- Herritarren partaidetzarako ordenantza sortzea.
- "Pum track" zirkuitu bat sortzea eta bizikletentzako aparkaleku gehiago egokitzea.
- Emakumearen etxea sortzeko prozesua abian jartzea.
- Udalerriko zirkulazioaren azterketa egitea, oinezkoentzako gune gehiago eta hobeak, eta aparkalekuak egokitu eta sustatuz.
- Kultura eta industria-ondarearen gida sortzea eta hura babesteko neurriak sustatzea.
- Klimaren aldaketaren aurkako Ekintza Plana martxan jartzea.

"Martxoak 8 emakume"

"Herriko zortzi andoaindar aterako ditugu plazara" esaldia erantsita, Andoaingo Udaleko Berdintasun sailak herritarren parte hartzea sustatu nahi du. Omenduko dituzten emakumeak proposatzeko aukera dago, datorren otsailaren 9ra arte. Basteron, Atarian, Allurralden edo Osasun Zentroan aurkez daitezke proposamen idatziak.



Bigarren pista estalia eraikitzeke partida eskatu du EH Bilduk. EHB

Aurrekontuetan txertatzeko zerrenda zehatza aurkeztu dute

EH Bilduk Gobernu taldeari helarazi dion inbertsio zerrenda zehatzaren berri eman du

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

2020ko Udal aurrekontu proposamena urtarrilaren 31n eztabaidatu eta bozkatuko da, goizeko 09:00tan pleno aretoan hasiko den batzaraldian. EH Bilduk Gobernu taldeari inbertsio zerrenda zehatza aurkeztu diola iragarri du.

Partida zehatzak egin dituzte, beti ere Udal ekonomiaren egoera ona kontutan harturik: "2011. urtean udaletxean soldatak eta fakturak ordaintzeko diru nahikorik ez zegoela, agintea hartu genuen. 2020ko urtarrilean 6 milioi euro inguru egon daitezke inbertsioak egiteko. Hori dela eta, EH Bilduk diru hori nola kudeatuko den erabakitzeke proposamena luzatu dio udal gobernuari". Hauexek dira partidak eta diru kopuruak:

- 500.000 euro kredituaren amortizaziorako.
- 1.500.000 euro Udal liburutegi berrirako.
- 1.500.000 euro Allurralde Kirodegiko bigarren pista estalia egiteko.
- 500.000 euro ur hornidura sarean eta saneamenduan erabiltzeko.
- 250.000 euro herriko merkataritzaren berrindartzerako programak lantzeko.
- 355.000 euro irisgarritasun ekimenetarako: Mimendiko arrapala, Dr. Huitzi eta Uri-gainen igogailua.
- 175.000 euro autokarabanen gunea egiteko.
- 50.000 euro Udal etxebizitzak konpontzen jarraitzeko.

Proposamen horiek eginda ere, egoera ekonomikoa ez dela estutuko erantsi zuten: "Aurkeztu dugun proposamenarekin oraindik udaletxeko kutxan nahikoa diru –milioi bat euro baino gehiago– geratuko lirateke, bestelako proiektuak egin ahal izateko".

Egitasmo estrategikoak direla dio EH Bilduk, hedabideetara aurkeztutako oharrean: "Proposamen errealista da egin duguna. Honekin, Andoainek behar dituen proiektu estrategikoei bultzada handia emango genieke. Orain arte gure proposamenarekiko jarrera hotza sumatu dugu, udal gobernuko alderdien artean (PSE-EE eta EAJ-PNV). Espero dugu udal gobernuak gure proposamena aintzat hartzea eta orain arte egin ez duten bezala, andoaindarren beharrak eta interesak lehenestea. Lehia partidistak baztertuz. EH Bilduren botoa, datorren urtarrilaren 31n, horren arabera erabakiko da".

Udal gobernuak kideek, aste hauetan, oposizioak Podemos eta EH Bildu alderdiei aurrekontu proposamena aurkeztu diete. EH Bilduren esanetan, "2019. urteko udal aurrekontuen jarraipen gisa egin direla ondorioztatzen dugu. Bai mamian, eta bai forman. Logikoa den bezala partida berri batzuk irekiko dira, baina inbertsio garrantzitsuenak Udalak kutxan duen diruaren bidez finantziatuko dira, orain arte egin den bezala, eta ez aurrekontuetan jasota dagoenarekin".



Astelehen eguerdian Kontzejupean elkartu ziren. AIURRI

Greba Orokorrerako deialdia luzatu dute

Urtarrilaren 30ean Greba Orokorrerako deialdia luzatu dute, Euskal Herriko sindikatu nagusiek eta hainbat gizarte eragilek. Oinarrian pentsiodunen eta jubilatuen eskaerak daude. Azken hauek, astelehenero bezala, elkarretaratzea egin zuten Goikoplazan

Xabier Lasa ANDOAIN

Andoaingo pentsiodunek urtarilaren 30eko grebarako deialdia luzatu dute, astelehen eguerdian deitu zuten asteroko elkarretaratzean. Pertsonak eta duintasunez bizitzeko eskubideak neurri politikoen erdigunean jartzea eskatu zuten. Bi agiri irakurri zituzten, astelehen eguerdiko ekitaldian. Eta, bereziki, emakume pentsiodunen egoera larria

dela adierazi zuten. Gizonezko ala emakumezko izan, datuek prekarietatea islatzen dute: "Hego Euskal Herriko eta Estatuko pentsiodunen erdiak baino gehiagok 1.000 euro baino gutxiago kobratzen dute. %0,9ko igoerak pertsona horiek bizi duten prekarietateari ez dio amaiera eman". Bigarren datu argigarria diru-sarrerak bermatzeko errentan aurki daiteke. Laguntza hori

jasotzen duten pertsonen %25a pentsioduna da. "13.421 pertsona dira, gehienak emakume alargunak. Pertsona horiek ez dute igoera hori ikusiko, diru sarrera bermatzeko RGI sistemak bere horretan xurgatzen duelako. Jaurilaritzak igoerari dagokion dirua aurreztuko du, honela. Pentsioak hemen eta orain osatzeko eskaera bete beharko luke. Hilean 1.080 eurotaraino".

"JAURLARITZAK GUTXIENEN PENSIOA 1.080 EURORAINO OSATU BEHARKO LUKE"

"RGI DELAKO LAGUNTZA JASOTZEN DUTEN %25A PENSIODUNA DA. 13.421 LAGUN DIRA"

Pentsio erreformak indargabetzea aldarrikatu zuten: "Premiazkoa da 2011ko eta 2013ko erreformak indargabetzea. 1.080 euroko gutxieneko pentsioa bizitza duinak bermatzeko ezinbestekoa da. Pentsioetan dagoen genero-arrakalarekin amaitu beharra dago. Euskal Herrian, emakume jubilatuek gizonek baino %40 gutxiago kobratzen dute. Emakume alargunen egoera bereziki larria da, %50 gutxiago kobratzen dutelako".

Sistema patriarkalak bere horretan dirauela erantsi zuten: "Ezerk ez du adierazten mendeetan zehar emakumeok arrastaka daramatzagun arazo handiak konpontzeko legeak egingo direnik. Aurrerapen tekniko guztiekin emakumeak manipulatu, merkantilizatu eta ikusezin bihurtu nahi gaituelako".

Ostegunerako deituta dagoen greba orokorrarekin bat egingo dutela adierazi zuten, "inguruan ikusten ditugun ezberdintasuna eta tristura ez ditugulako gustuko. Euskal oasi honetan badagoelako nahikoa arrazoi. Eta greba beti langile-klasearen eskubidea eta indarra delako, eta izango delako".



Greba deitzeko afitxa. KARTA

Grebaren hitzordu nagusiak

Ekimen handiko egunak datoz. Hauexek dira Karta Sozialetik iragarri dituzten hitzorduak:

Urtarrilak 29, asteazkena

19:00 Kotxe karabana, Makaldegitik.

20:00 Lapiko-jotzea Goikoplazan.

Urtarrilak 30, osteguna

05:30 Kotxe karabana, Zumea plazatik.

09:00 Kalek kale oinez, Goikoplazan hasita.

11:10 Donostiako manifestaziora joateko elkartuko dira, Makaldegian.

11:45 Manifestazioa Amaratik.

17:00 Manifestazioa, Goikoplazatik.

19:00 Eskualde mailako manifestazioa Hernanin.

andoaINDARRA
euskaraz

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

www.aiurri.eus

Aiurri eskuragarri:
Ebeiz etxeko harpidetza-sistema. Andoaingo urte osoko harpidetza-saria 39 eurokoa da. Urrietan, 31 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoaingo. Tel.: 943 300 732. Faxa: 943 300 731. andoaingo@aiurri.eus www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.
Erredaktoreak: Xabier Lasa, Mikel Arberas, Andoni Urbistondo.
Maketatzailea: Maddi Trubuelo.
Kudeaketa, harpidetza: Garbiñe Ugarte Mendia. idazkaritza@aiurri.eus
Publizitatea: Fer Irazu. publizitatea@aiurri.eus
Banatzaileak: Mikel Arregi (Andoaingo), Axun Jauregi eta Rocio Arias (Urdieta).
Diseinua: Goiena Komunikazio Taldea
Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus
Whatsapp: 619 163 537
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.
Inprimategia: Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA: ERROITZ

ALIATUAK: NESTOR, TOKIKOM

BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:

ANDOAINGO UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:

Gipuzkoako Foru Aldundia

ZIURTAGIA: Bikan

BABESLEAK:

Aiurriko harpidedunak ezinbestekoak dira.



Airetik ateratako irudi ikusgarrian ikus daitezke eskuko telefonoak piztuta zeruari begira jarri ziren ehunka euskaltzaleak. Gehien-gehienak andoaindarrak, baina baziren ere inguruko herrietatik hurbildutakoak. **ANERUNANUE**

Ezina, bikain egina

"Larramendi eguna"ren lehen edizioaren balorazioa ezin hobe da. Jendetzak Bazkunaren deialdiari erantzun zion, aurreikuspen guztiak gaindituz. Euskararen alde adierazteko herritar asko dago Andoainen, eta hori albiste pozgarria da

Erredakzioa ANDOAIN

Asteetan zehar landu den ekimena burutzeko eguna iritsi zenean, urduritasuna nagusi zen. Erraza dirudien arren, teknika-
ren eta giza baliabideen arteko uztarketak lanak ematen dituelako. Giza irudia osatzeko perimetroa landu, txokolatea eskaintzeko guneak egokitu, adierazpenak eta bertsoak eskaintzeko ekitaldia burutu... denbora tarte txikian hori guztia egin behar zen. Jendetza hurbildu zen, aurretik izena emanda zeuden ia hirurehun lagunak bezain beste.

Beste berrehun lagun gehiago hurbildu baitziren, azken orduan ekitaldiak hartu zuen oihartzunak eramanda. Jon Unanue Bazkuneko zuzendariaren esanak zintzo bete zituzten, eta horri esker giza irudi ikusgarria osatzea lortu zen. Larunbat gauera-ko drone bidez Aner Unanuek grabatu zuen bideoa euskaltzaleen artean zabalduz joan zen. Bertaratu ziren eta joan gabe geratu ziren euskaltzaleen artean poza hedatu zen. Etorkizunerako ahalduntze berriak sustatzeko baliagarri izan dadila.

"Erronkarik zailenetakoa euskaldun bizitzea da"

Ariane Obineta Manuel Larramendi Kultur Bazkuneko lehendakariak adierazpena egin zuen Goikoplazan: "Gaur egun, orduan bezala, andoaindarrok eta euskaldunok etorkizunari begira dugun erronkarik bizienetakoa, zailenetakoa, euskaldun bizitzea da"

Aiurri komunitatea

LARRAMENDI BAZKUNA / ANDOAIN

Larramendi Eguna ospatzen ari gara gaur Andoainen, euskara biziberritzeko, suspertzeko, askatzeko bideari hasiera eman zion euskalari andoaindar handiaren omenetan. Orain 354 urte hil zen, bere bizitza osoa euskarari eta bere sorterriaren aurrerabideari eskaini ondoren, eta bere gaztaroan ezinezkotzat jotzen zena, alegia, euskara hezibide eta kultura hizkuntza izatea, gizarte baten hizkuntza egituratzailea izatea, egintzat eta bidezkotzat utzi zuen berak, besteak beste, euskararen lehen gramatika idatziz eta euskararen lehenengo hiztegi handia argitaratuz... Ezina ekinez egin zuen eta Euskal Herri osoari frogatu zion, garbi adierazi ere, geure hizkuntza berezkoa euskara zela eta hark egiten gintuela euskaldun.

Gaur egun, orduan bezala, andoaindarrok eta euskaldunok etorkizunari begira dugun erronkarik bizienetakoa, zailenetakoa, euskaldun bizitzea da, euskaraz hazi eta aritzeko gure aukera eta eskubideari eutsi ahal izatea.

Erronka hori guztioi dagokigu, zahar, heldu zein gazteei, baina gazteek duzue bereziki euskara gure gizartean sendotzeko eta zabaltzeko eginkizuna, Larramendik nahi bezala duin agertzeko ardura nagusia, katebegi berria baitzarete, eta euskaraz biziz, euskara gure eginkizun guztietarako –guzti-guztietarako– erabiliz gure nortasunari bere osotasunean eutsiko diogu, mundu zabalean barrena eskaintzen zaizkigun beste hamaika kultura eta nortasunen aukerari munitin egin gabe.

Horregatik. Euskaraldi berri bati heldu diogun urtean, udaberria agintzen digun negu umelaren erdian, gaur eta hemen elkartu garen euskaldunok hitz



Ariane Obineta Larramendi Bazkuneko lehendakaria. AIURRI

eman nahi diogu gure buruari, gure egunerokoan euskara gure bizitzaren ardatz egingo dugula, gure bizitzaren sustrai eta mami, gure nortasuna bermatuz, gure ingurumenean dugun kultura aniztasunari uko egin gabe, baina jakinik euskaldun izateko bide bakarra euskaraz bizitzea dela, euskara hitzetik hortzera erabiltzea, mugarik jarri gabe, bide berriak zabalduz eta gure nor izatea, gure nortasuna, osatuz.

Eta oraindik behar beste euskara ikasi ez dugun herriarrok hitz eman nahi dugu ahalegin sendoa egingo dugula euskara behar beste erabiltzen, herri euskaldun bateko partaide izan gaitezen ahalegina egiten, euskarak gu aberasten gaituelako eta gurekin, euskarak, herria aberasten duelako.

Beloki eta Ormaetxea bertsotan

Bertso onak eskaini zituzten. Aukeran, Ion Belokiren bertsoa: *Euskararen alde gaude hori badakit jakina, horregatik izan du gaurko honek eragina. Honera etorri eta goitik da ezberdina, egunero nahiko nuke ikusi jendea adina. Euskararen olatuai eman bultzadik handina, zeren gure herri hontan oi falta da alajaina (bis). Ezina bihur dezagun gaurko honetan egina.*

Talde lana, ezinbestekoa



Prestaketa lanak, Goikoplazan. BAZKUNA

Aurretik Ekitaldia antolatzeko, eta bereziki giza irudia osatzeko, aldeztu aurretik egin zituzten lan guztiak. Egunean bertan hurbildutako lagun guztiei giza irudian sartzeko aukera ematea ez zen batere erraza izan, espero zirenak baino askoz gehiago zirelako.



Txokolate beroa banatu zuten Agustin Leitza eta Batzokia elkartekoek. BAZKUNA

Bitartean Manuel Larramendiren garaian txokolatearen inportazioa gauzatu zen, orduko hartako biztanleentzat urte beltza bilakatuz. Larramendik zuen zaletasuna hura gogoan, bertaratu zirenei txokolate beroa eskaini zieten.



Ekimenean parte hartu zuten hainbat lagun, ekitaldia amaitu ostean. BAZKUNA

Ondoren Euriaren eta haizearen beldur ziren antolatzaileak, drone bidez irudiak ondo grabatu ahal izateko ezinbestekoa baitzen eguraldia bare egotea. Negu betean egoteko, arratsalde-iluntze polita izan zen larunbatekoa.

Industria alorreko ikasleen trebakuntza saioa

Bigarren urtez jarraian, Berrikuntza Ekitaldian parte hartu dute Salestar Ikastetxeko arlo industrialeko ikasleek

Aiurri komunitatea

Salesiar ikastetxea / URNIETA

Bigarren urtez, Sei Orduko Berrikuntza Ekitaldian parte hartu dute Urnietako Salestar Ikastetxeko Lanbide Heziketako bigarren mailako arlo industrialeko ikasleek. Bi helburu izan ditu; alde batetik, enpresek ditzuten erronketara ikasleak gerturatzea. Eta, bestetik, erantzun berritzaileak sortzea. Horretarako, sei ordutan zehar ikasleak taldetan banatuta aritu dira lanean.

Irtenbidea emateko proposatutako erronkak benetakoak izan dira; enpresetako egiazko beharrei erantzuteko sortuak, alegia. Izan ere, ikasleek enpresetan izan ditzaketen zailtasunak identifikatu eta horiei aurre egiteko prestatu ari dira. Era berean, ikasten ari diren zikloak dituen prozedurak, kompetenziak



Trebaketa saioaren irudia. SALESIARRAK

eta tresnak egon dira ikaskuntzaren oinarrian. Gai teknikotan orain arte ikasitakoa eta "Ikasenpresa" arloan barneratutakoa uztartuz aritu dira lanean. Irakasleen iritziz, emaitza "onak" eta kasu batzuetan "oso onak" emanaz.

Jolas didaktikoak landu dituzte, talde lanean

DBHko ikasleek ingurumenaren aldeko baloreak landu dituzte, modu ludikoan

Aiurri komunitatea

Egape ikastola / URNIETA

DBH 2ko ikasleek "Materia nahi, birziklatzea ere bai" unitate didaktikoa landu dute, fisika-kimika arloan. Curriculum akademikoarekin loturiko gaiak eta ingurumenaren aldeko baloreak jasotzeaz gain, proiektu bat garatu dute komuniteari zerbitzua eskainiz. Talde lanean bi jolas didaktiko diseinatu dituzte. Gela bateko ikasleek "Pasapalabra" lehiaketako formatua erabiliz, gaiarekin loturiko jokua diseinatu dute. Beste gelakoek, aldiz, "Zer edo nor naiz?" tanke-rakoa jolasa osatu dute. Proiektua garatzeko lau ikastordu erabili dira, Jolas eta Ekin elkartearen lankidetzarekin burutu direnak.

Urtarrilaren 9an, DBHko ikasleak LH 6ko ikasleen irakasle bihurtu ziren. Haiekin jarri



Jolas ludikoak landu dituzte. EGAPE

zituzten praktikan diseinatutako jokuak eta edukiak. Era berean, modu ludikoan, ingurumenaren aldeko baloreak partekatu zituzten. Gustura aritu ziren lanean, eta esperientzia aberasgarria izan zen guztiontzat.

Garcia-Viana, Irun Hiria lehiaketako irabazlea

Txema Garcia-Viana urnietarrak Irun Hiria literatur lehiaketan irabazleetakoa da, Sari ezaguna eta garrantzitsua da, euskal literaturaren baitan. Urnietarrak 36ko Gerran kokaturiko "Pentaedroa" nobelarekin jaso du saria



Urnietarrak saria jaso zuen unea. IRUNHIRIA

Erredakzioa URNIETA

XLIII. Irun Hiria Kutxa literatur sariketa irabazi izana, sari handia da edozein idazlerentzat. Egileak berak aitortu zuen, saria jaso ostean. Berrian adierazi bezala, "hasteko, ekonomikoki. Baina ez naiz ari alde ekonomikoaz bakarrik. Sari honek nola-baiteko aitortza ere suposatzen du hainbeste eskatu didan lan honentzat".

Liburu mardula da, 36ko gerran kokatua, Errepublikaren aldeko diren antzerki talde baten ibilerak kontatzen dituen. Egilearen aburuz, "Lehen irakurketan, abentura nobela bat da. Badu, baina, bigarren irakurketa bat ere, eta uste dut hori ikusi dela epaimahaiak". Elkar argitaletxeak aurkeztuko du liburua, eta aurrerapen modura elkarrizketa txikia eskaini du argitaletxearen aldizkarian.

Zer da Pentaedroa?


Gerran girotutako nobela da. Frankistek herri txiki bat hartu eta egundoko errepresioa ezarri dute. Jende askoren bila dabilta,

tartean, Pentaedroa antzerki-taldea osatzen duten bost kideen bila. Hauek, halabeharrez, sakabanatu egin dira. Norberak bere istorioa bizi du, eta, hala ere, boston istorioak behin eta berriz txirikordatzen dira, patuak beren bizitzak hari ikusezin baina sendoen bidez lotuko balitu bezala. **Baita gerrari berari buruzko hainbat hausnarketa ere...**

Liburua gerraren inguruko hausnarketa bat. Nahigabe ere geure baitan dauden aurreiritzi manikeo batzuk ezbaian jartzen saiatu naiz, adibidez, gutarrak guztiz zintzoak zinenekoa, eta besteak, berriz, eskrupulurik gabeko hiltzaile ankerrak.


Dokumentazio-lan handia egin behar izan al duzu?

Egin dut. Berton azaltzen diren gertakizun gehienak egiazkoak dira, nahiz eta kontakizunaren beharretara egokitu ditudan, jakina. Horrelako eleberriek garaia eta giroa taxuz islatzea ezinbestekoa dute, istorioa sinesgarri gertatuko bada. Baina nobela bat fikzioa da. Oreka da gakoa.



Laster, eskuragarri

Nobelaren deskribapena egilearen ahotan: "Gerran girotutako nobela da. Argumentu orokor horren azpian, hamaika istorio, drama eta abentura bildu ditut".



David Rosco zinegotzia informazioa eskaintzen ari den unea. UDALA

Igande honetan amaituko da proposamenak aurkezteko epea

Joan zen asteburuan, herriko toki ezberdinetan, helburu informatzailea zuen karpa ipini zuten

Erredakzioa URNIETA

Udalak emandako datuaren arabera, ostiralean urnietar ugari gerturatu zen informazio karpakara. Ez soilik informazioa jasotzera, baizik eta ekarpen zehatzak egitera. Buzoiak proposamen ezberdinez bete ziren. Oraindik ere proposamenak

aurkezteko epea dago. Zehazki, igandera arte. 16 urtetik gorako urnietarrek parte har dezakete, kontsultan. Eta aukerak zabalak dira: Urnietara APP bidez, webgunean sartuz edota proposamena herrian zehar banatuta dauden buzoi eta puntu ezberdinetan aurkeztuz.



Informazio guneetan ipinitako buzoiak proposamenez bete zen. UDALA



IRITZIA

ANDONI URBISTONDO

URNIETA

Enpatia

Pasa daitezke 500 asteburu, edo mila, eta igual azkeneko hau bezain aberatsa bakar bat bera ere ez, gertakizun edo sentimenduei dagokionez. Laburpen bat egin nahi, eta hitz bat etortzen zait burura: enpatia. Nire asteburuaren hasiera ostiral eguerdian kokatuko dut. Bizikleta hartu eta Goizuetara joan nintzen. Bueltan, Ereñozutik aurrera nekea sumatu nuen, etxera iristeko gogo. Hernanitik Urnietara bueltatzeko hainbat bide erabiltzen ditugu. Azkarrena, trenbide ondotik doana, baina zerrategi zaharreko aldapa gaiztoak indartsuena ere koldartzen du. Elizatxotik Larramendira, eta handik kanposantuko irteerara, bestea. Han semaforo bat dago. Ba hantxe istripua izan nuen. Muturreko latza, motor baten aurka.

Talka egin genueneko argazkia dut iltzatuta. Oihu egin eta txokea. Eta gero mina. Konortea galtzetik gertu. Eta istripua ulertzeko komeriak. Amorrúa, hasiera batean, motorreko gidariarekin. Barkamena eskatu zidan, gero. Eskerrak eman nizkion. Enpatia apur bat sentitzen saiatu, bera ere zauritua edo urduri egin zitekeela pentsatuz. Elena Santervas urnietarrak lagundu ninduen, etxekoei deitzen, nire gauzak jasotzen. Enpatia handia harekin. Institutuko irakasleren

batekin ere bai. Nor zen ez dakit. Bizikleta, eskularruak eta beste hartu eta institutuan utziko zituela esan zidan. Enpatia.

Zer esan datuak hartu zizkidan Hernaniko udaltzainaren pazientziatz. Edota anbulantzia eta Larrialdietako langileei buruz. Erregearen pare zaindu ninduten. Enpatia. Ostiral gauean argazki deigarri bi jarri nituen sare sozialetan. Oihartzun handia izan zuten. Eskertu baino ez, denen animoak. Enpatia handia, haiekin ere. Arreba eta koinatuarekin. Izeba eta lehengusuekin. Errugbi partidara eraman ninduten koadrilako lagunei. Xiker eta Mikeli, igandean Anoeta inguruan pasa genuen egun zoragarriagatik.

Anoetako harmailetakoa azken aurrekoa. Bultzada txuriurdina gazte zale talde soinuetsuaren goialdeko harmailan, aspaldiko bi ezagun. Elespetarrak. Andoni eta Josu. Edota Josu eta Andoni. Ni baino lau ilara beherago. Besarkada bana eta solasaldi polita erretzaileen txokoa, atsedendian. Urte

**TALKA EGIN
GENUENEO
ARGAZKIA DUT
ILTZATUTA. OIHU EGIN
ETA TXOKEA**

luzeetako zorra biekin. Nola esan, enpatia falta, Xauxar tabernan gaztetan milaka ordu elkarrekin pasa ondoren. Noizbait etorriko den, etorri behar duen solasaldi baterako intentzio zintzoarekin agurra.

Etxera bidean, azken aurrekoa. Kobe Bryant NBAko izar izandakoaren bat-bateko heriotza, helikoptero istripuan. Michael Jordan eta Kobe bera ikusten hazi eta hezi ginen saskibaloizale asko, eta mitoen heriotzak beti samurtzen ditu bihotzak. Twitterren irakurritako txioa: “Gorrotot nuen Kobe, gorrotot nuen Lakers taldea, nire gogoko taldea menderatzen zutelako beti. Baina nire familiako kide bat galdu izan banu bezala sentitzen naiz. Saskibaloia da, bere jendea, pozo hori zainetan sartzen dizute, eta pozo hori betirako geratzen da zure zainetan”. Enpatia, Kobe Bryantekin.

Gaur goizekoa, azkena. Gosaltzerakoan. “Hainbeste putakume munduan, eta Kobe hil behar ere...”. Kobe Staples Center kantxan jokatzeko ikusi zuen urnietar bakarretako batek esana. Enpatia.

**ANBULANTZIA ETA
LARRIALDIETAKO
LANGILEEK
ERREGEAREN PARE
ZAINDU NINDUTEN**

Nikolas Segurola fraideari Baserritarron laguna saria

ENBA nekazal sindikatuak urteko batzar orokorra egin zuen asteburuan, Urnietako salesiar ikastetxean

Erredakzioa URNIETA

Baserritarrak eta agintariak elkartu ziren Urnietan. Iñaki Goenaga sindikatuko lehendakariak familia nekazaritza defendatu zuen, horixe egokiena dela argudiatuz. Era berean, ingurumen

alorrean egiten duten lana azpimarratu zuen. Bereziki, mendian lan egiten duten abeltzainen kasuan. Ekitaldian omenaldia eskaini zioten Nikolas Segurola fraideari. Lagunarteko bazkariarekin amaitu zen eguna.



Nikolas Segurolak Baserritarren laguna saria jaso zuen ENBA nekazal sindikatuaren batzar nagusian. ENBA

“Jorge Azanza kirol zuzendari izateak konfiantza ematen dit”

TXIRRINDULARITZA 27 urte, adin perfektua txirrindulari profesional batentzat. Mikel Iturria iazko mutil bera da, Vueltako etapa garaipenaren burrunba arazorik gabe gainditu zuena, etorri bezala joan zelako

Andoni Urbistondo URNIETA

Euskadi Fundazioan ariko da, nahi zuen tokian, eta gustuko duen kirol zuzendariarekin. Jauzi kualitatibo bat eman nahi luke hastear duen denboraldian: ihesaldi gehiago harrapatu, edo sailkapen nagusi hobeak egin. Eta amets bat: Euskal Herriko Itzulian Erreterian bukatuko den etapa irabazten saiatu.

Urtarrila bukatzeaz da. Nola zaude?

Lasai. Betiko martxan. Urrian atsedena hartu nuen, 3-4 aste, gero entrenatzen hasi pixkanaka... Urteroko prozesua.

Talde aldaketa ondo?

Etxean gustura egoten naiz. Pauso naturala izan da.

Beste eskaintzarik jaso zenuen, Fundazioaz gain?

Ez, ez zen beste eskaintzarik egon.

Zein hausnarketa eragiten dizu horrek? Vueltako etapa bateko garaileak eskaintzaren bat jasotzea litzateke logikoa, ezta?

Hausnarketarik ez dit eragiten. Halaxe dago txirrindularitza. Erabakia hartua neukan Urdazubin etapa irabazi aurretik, eta garaipen horrek ez zuen egoera aldatu. Egunen batean World Tour talderen batean korritzeko itxaropena mantentzen dut, baina etxean, Euskal Herriko talde batean aritzeak ere indarra ematen dit, ilusioa sortu.

Hoge txirrindulari Fundazioan, baina aurten erreferentzi, edo liderretako bat izango zara.

Beno, aurten ezberdintasuna da nigan konfiantza duela kirol zuzendariak. Pasa den denboraldian agerikoa zen beste txirrindulari batzuekin konfiantza gehiago zutela, eta aurten nigan daukate. Batzuetan ni izango naiz taldekideen laguntza jasotzen lehena, besteetan ni izango naiz taldekideak laguntzen lehena.



Urte berriarekin batera, talde berriko elastikoa jantzi du urnietarrak. **AIURRI**

Iraganean konfiantza falta sentitu izan zenuela esan duzu, hori aldatu da Euskadi Fundazioan Jorge Azanzarekin.

Aspaldi ezagutzen dut. Vueltako etapa irabazi aurretik ere transmititu zidan konfiantza hori. Irabazi eta gero, are gehiago.

Zergatik daukazu hainbeste konfiantza Azanzarekin?

2015ean nire kirol zuzendaria izan zen, eta urte hartan sintonia ona eduki genuen. Azanzak norbaitekin fedea, konfiantza badu, benetako konfiantza da, ez da faltsukeriatan ibiltzen. Gauzak ondo egiten dituzunean ondo egiten dituzula esango dizu, baina gaizki egiten dituzunean ere gaizki egiten dituzula esango dizu. Zintzotasun horrek norberaren errendimendua hobetzea dakarrela esango nuke.

Zuk nahiago duzu jarduteko modu hori, ezta?

Bai, gauzak garbi. Orain eman didan konfiantza hori bueltatu nahi nioke.

Zer eskatu dizu Jorge Azanzak, zerbait eskatu badizu?

Nire aukerei ahalik eta zuku gehien ateratzea, eta taldekideei laguntzea, behar dutenean. Aurterapauso bat emateko ere eskatu dit. Sailkapen nagusietan, garaipenaren lehian gehiagotan egon...

Eta zer eskatu diozu zuk Fundazioari, Jorge Azanzari?

Ezer ez, konfiantza.

Aurkariak gehiago zainduko zaituzte, erakuslehoan jarri zintuen Vueltako garaipenak.

Ez dut uste. Ez naiz Peter Sagan. Aurten iazko Vueltaren tamainako ihesaldiren batean sartzen banaiz, ez naiz txirrindulari zainduena izango.

Egutegia garbi daukazu?

Bai, Mallorca urtarrila bukaeran, gero Murtzia, Almeria eta Andaluzia, eta handik, altuerako prestakuntza Sierra Nevada, Granadan. Ondoren, Katalunian Volta, agian Indurain Sari Nagusia, Lizarran, Euskal Herriko Itzulia eta Tour of The Alps, Tirol aldean.

Zuk nahi zenuena.

Bai, taldeak egin zezakeena. Agian Espainia hegoaldean korrituko ditudan hasierako itzuli horiek baino nahiago nuen Frantziako proba batzuk korritu, baina taldeak ez du proba horietan parte hartuko, eta ezin. **Zein helburu duzu, denboraldiko lehen zati honetan?**

Beno, Mallorcan kilometroak pilatu egun pare batean. Gainkarga txiki bat izan berri dut izterrean, lau bat egun edo egin behar izan ditut entrenatu gabe. Gero Almeria, Murtzia eta Andaluzian puntu on bat lortu, eta altuerako egonaldia eta gero, Voltan azken estualdia eman Euskal Herriko Itzulira puntuarik onenean iristeko asmoz (apirila hasiera).

Itzulian distira edukitzea zaila da, ordea.

Bai, ibilbide osoa aurkeztu zain gaude. Ihesaldiren bat bilatu nahi nuke, edota sailkapen nagusi on bat egin. Alpeetako Itzulia ere asko gustatzen zait, hamar onenengandik hurbil ibili izan naiz, ea aurten arantzatzko hori kentzen dudana.

Pasa den astean egin zuen aurkezpena Euskadi Fundazioak. Zer moduz doaz lehen egunak?

Martxa hartzen ari da taldea. Lasai doa, baino itxura ona dauka. Orbea eta Etxeondo enpresek laguntza handia eman digute, eta haien laguntza eskertu nahi nuke.

Taldeak ez du aurtengo Espainiako Vueltarako gonbidapena ziurtatua, momentuz. Zenbateraino baldintzatzen du egoera horrek txirrindulariaren, taldearen jarduna?

Nire kasuan askorik ez. Maizta arte ez da ezer mugituko, ez dute ezer esango, eta horretan pentsatzea alferrikakoa da. Maizatzean jakingo da Vuelta egingo dugun edo ez, eta erabakiaren arabera jokatu behar da modu batera edo bestera. Ezin naiz egon Vuelta korrituko dudana edo ez pentsatzen egon, ez baita nik moldatu edo aldatu dezakedan erabakia. Nire eta gure lana maizta bitarte ahalik eta lanik onena egitea da, neurria ematea.

Emaizta onak lortzeak gonbidapena lortzeko aukera handituko du.

Amets bat, denboraldi honetarako? Pertsonalki, Euskal Herriko Itzulian Erretereriako etapa irabaztea.

Mikel Alonso taldekide eta herrikidea Argentinan

Alonso eta Iturria urnietarrek bat egin dute, berriro. Biak talde berean dira, baina gaurkoz egutegi ezberdinak dituzte. Aste honetan bertan, urtarilaren 26tik otsailaren 2ra, Euskadi taldea Argentinako Vuelta a San Juan itzulian da. Eta hantxe dabil Mikel Alonso, 81 dortsalarekin lasterka. Peio Goikoetxea, Jokin Aranburu edota Gari Bravo ditu taldekide.



Mikel Alonso, ezkerrean hasita bigarrena da. **EUSKADIFUNDAZIOA**

Jubenil mailako neskak Gipuzkoako txapelaldunak

ESKUBALOIA Txapelketa irabaztearekin batera, Urnieta Indaux eskubaloit taldeak Euskadiko txapelketan parte hartu ahal izateko Play-offa jokatu du. Kirol mailako lorpena Pulpo taldea garaitu eta gero iritsi zen

Mikel Arberas URNIETA
Emakumezkoen jubenil taldeak garaipen garrantzitsua lortu zuen larunbatean, Pulpo taldearen aurka (28-24). Gipuzkoako txapelaldun bilakatuz. Saria bi-koitza izan zen, txapelak bigarren saria dakarrelako: Euskadiko txapelketako Play-offean aritzeko txartela eskuratzea.
Partida bikaina jokatu zuten, hasieratik amaierara. Defentsa lan sendoa erakutsi zuten eta erasoan fin aritu ziren. Atsedena aldian emaitza argigarria zen: 14-8. Atsedena ldiaren ostean, berriz, zumaiaurrek norgehiagoka estutu zuten eta gol bakar-erra gerturatu ziren. Esanak esan, urnietarren hurrengo erronka Euskadiko txapelketan garaipenaren bidetik jarraitzea izango da.



Ainara Mujika, jubenil mailako jokalaria. UKEURNIETA

Urnieta-Leizaran jubenil mailan
Jubenil mailako Urnieta Guriak ere garaipen garrantzitsua lortu zuen, liga irabazte den Andoingo Leizaran taldearen aurka. Partida osoan zehar hartu zituzten mendean andoindarrak, eta garaipen argia lortu zuten (36-23). Urnietarrek ere Euskadiko txapelketa jokatzeko aukera izango dute, lortutako azken garaipenari esker.



Peru Sanchez, jubenil mailako jokalaria. UKEURNIETA

Albiste kaskarrak senior mailakoen aldetik iritsi ziren. Mutilen taldeak ez du lortzen sailkapenean aurrera egitea. Txiki-polit taldea gailendu zen markagailuan, nahiz eta jokoan partida orekatua izan. Esan bezala, lehen zati ona jokatu zuten, baina atsedena ldira hiru puntuko aldearekin iritsi ziren. Ostean, zaraustarrek intentsitateareagotu eta bost goleko alde lortu zuten.
Emakumezkoen taldeak Eibarren aurka galdu zuen (27-18). Hainbat akats egin zituzten, eta erasoan ez ziren batere fin aritu. Sailkapenean bigarren postuari eusten diote. Ez da gutxi.

KARTELDEGIA: FUTBOLA, ESKUBALOIA

FUTBOLA

OHOREZKO ERREGIONAL MAILA	
Euskalduna-Eibar Urko	0-3

NESKAK, 0. ERREGIONALA	
Urnieta-Añorga	1-3

ERREGIONAL PREFERENTE	
Urnieta-Hondarribi	0-2

ERREGIONAL 1. MAILA	
Segura-Euskalduna	3-2

SAILKAPENA	
1 Segura Goierri	34 puntu
6 Euskalduna	23 puntu

PREFERENTE NESKAK, IGOERA	
Euskalduna-Santo Tomas Lizoea	2-1

SAILKAPENA	
1 Euskalduna	6 puntu
2 Amaikak	4 puntu

JUBENIL MAILA, OHOREZKOA	
Billabona-Euskalduna	1-0

SAILKAPENA	
1 Euskalduna	36 puntu
2 Touring	36 puntu

JUBENIL MAILA, KOPA	
Internacional-Urnieta	2-1

SAILKAPENA (3. MULTZOA)	
1 S.A.N.S.E	9 puntu
4 Urnieta	6 puntu

KADETEAK, IGOERA FASEA	
Euskalduna-Behobia	2-2

SAILKAPENA	
1 Lazkao	12 puntu
3 Euskalduna	8 puntu

KADETE, KOPA	
Urnieta-Amara Berri	3-0
Danena-Urnieta	1-1
Intxurre-Euskalduna	2-1

SAILKAPENA (5. MULTZOA)	
1 Ekintza	6 puntu
3 Urnieta	5 puntu

SAILKAPENA (7. MULTZOA)	
2 Urnieta	7 puntu
7 Euskalduna	0 puntu

KADETE NESKAK	
Usurbil-Euskalduna	4-1
Martutene-Urnieta	0-2

ESKUBALOIA

EUSKADI, SENIOR MUTILAK	
Txiki-polit-Urnieta	29-20

GIPUZKOA, SENIOR EMAKUMEAK	
Eibar-Urnieta	27-18

SAILKAPENA	
1 Egia	24 puntu
2 Urnieta	20 puntu

GIPUZKOA, SENIOR MUTILAK	
Donibane-Leizaran	22-36

SAILKAPENA	
1 Saieko	24 puntu
4 Leizaran	18 puntu

GIPUZKOA, JUBENIL MUTILAK	
Urnieta-Leizaran	36-23

SAILKAPENA	
1 Leizaran	10 puntu
4 Urnieta	6 puntu

GIPUZKOA, JUBENIL NESKAK	
Leizaran-Astigarraga	24-17
Urnieta-Pulpo	28-24

SAILKAPENA	
1 Urnieta	8 puntu
2 Leizaran	7 puntu

GIPUZKOA, KADETE MUTILAK	
Leizaran Horia-Bera Bera	21-16
Leizaran-Pulpo	30-34
Aloña Mendi-Urnieta	29-29

GIPUZKOA, KADETE NESKAK	
Urnieta-Usurbil	14-30
Urnieta I.M-Urola	17-19
Leizaran Horia-Aiala	23-22

ARETO FUTBOLA

LIGA, 1. JARDUNALDIA	
Euskalduna-Egintza Egarrri	5-1

SAILKAPENA	
1 Eguzki	33 puntu
5 Euskalduna	23 puntu

SASKIBALOIA

JUNIOR GIZONEZKOAK	
Ganbra-Cafes Aitona	26-81

KADETE GIZONEZKOAK	
Ganbara-Antigua Luberrri	34-45



HITZORDUAK

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEARTEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

ASTEAZKENA 29

ANDOAIN Mintzalagunak

Euskararen sustapenean aritzeko deialdia zabalik dago. Euskaldunak behar dira, euskara ikasteko bidean trebatzaile izan daitezen. Informazioa udaletxean edota AEK euskaltegian. **Izen-ematea zabalik.**

ESKUALDEA Aiurri

Greba deialdia dela eta, Aiurri astekariaren banaketa egun bat aurreratuko da. **Egun osoan zehar.**

ANDOAIN Entsegua

Santa Agedako erronda. **19:30 Ambrosia Olabide.**

OSTEGUNA 30

ANDOAIN Lehiaketa

Andoain Laburrean lehiaketan parte hartzeko azken eguna. 16 urtetik gorako gazteei zuzenduta dago. Lanak Euskara Zerbitzuan aurkez daitezke. Sariak hiru dira: 400, 200 eta 100 eurokoak, hurrenez hurren. **Lanak aurkezteko azken eguna.**

ANDOAIN Greba Orokorra

Egun osoko deialdia. Informazioa aiurri.eus gunetik zabalduko da. **Egun osoan zehar.**

ESKUALDEA Aiurri

Greba deialdia dela eta, Aiurri ez da banatuko ohikoa den egunean. **Egun osoan zehar.**

URNIETA Entsegua

Santa Agedako azken aurreko erronda. **20:00 Lekaio.**

OSTIRALA 31

ANDOAIN Plenoa

Udal aurrekontua onartzeko plenoa. **09:30 Udaletxea.**

ANDOAIN Erakusketa

London, Polonia eta Mexiko aldean ibili da Maritxalar. Haren artelanak otsailaren amaiera bitarte ikusgai izango dira. **18:00 Basteroko erakusketa gela.**

MARTIN UGALDE FOROaren ekitaldia

Otsailaren 6a osteguna 19:00etan

Jatorri anitzeko biolentzien biktimak
ETA, ERE eta GALen kaltetuak

Maria Jauregi (saria ETXa hitz zion)
Eneko Etxeberria (saria EREx desegonaz zion)
Gloria Enekoitz Etxebarria (saria GALa hitz zion)
Naiara Zamareño (saria ETXa hitz zion)
Hagore Otegi (saria GALa hitz zion)

Ekitaldi irekia izango da Martin Ugalde Kultur Parkean. MUPARKEA

ANDOAIN Bizikidetzaz hizpide, biktimen eskutik

Hamarkadaz luzatutako gatazkak, biolentziaren eraginez, izaera ezberdineko biktimak utzi ditu. Mahai-ingurua Andoainen izango da, Martin Ugalde Kultur Parkean, herritar guztiei zabalduko ekitaldian.

Otsailak 6, osteguna. 19:00. Ekitaldi irekia.

LARUNBATA 1

URNIETA Ospakizuna

Kantazun taldearen ekimenez. **12:00-14:00, Kantu kalejira. 14:30 Kantu bazkaria Lekaion.**

IGANDEA 2

URNIETA Parte hartzea

Proposamenak aurkezteko azken eguna. Buzoi eta gune ezberdinetan aurkez daitezke proposamen ezberdinak. **Azken eguna.**

ASTEARTEA 4

ANDOAIN Santa Eskea

San Esteban auzoko herritarrek. **15:00 Goiburuko ermitatik.**

ANDOAIN Santa Eskea

Bazkunaren eskutik, kantuan irtengo dira. Aurreitk izena emandakoek Ontza elkartearen afalduko dute. **18:00-20:30 Dr. Huitzik abiatuta.**

URNIETA Santa Eskea

Azken entsegua egingo dute, eta ondoren kalez kale ibiliko dira. **17:30 Entsegua Lekaion. 18:00 Irteera Lekiotik.**

OSTIRALA 7

ESKUALDEA Parte hartzea

"Aurrekontu irekiak 2020". Informazio osoa Gipuzkoa.eus/partaidetza atalean. **Azken eguna.**

ESKUALDEA Matrikulazioa

Ikastetxeetan datorren urtean matrikulatzeko azken eguna. **Azken eguna.**

LARUNBATA 8

ANDOAIN Axeri puska biltzea

Axerien irteera egonkortuz doa, urtez urte. Aurten Goiburu aldean ibiliko dira. Parte hartu nahi duenak andoingoxeridantza@gmail.com e-postara idatzi behar du. **08:00 Irunberri.**

ZINEMA



ANDOAIN

BASTERO


1917

Larunbata, 1:
19:30, 22:00.
Igandea, 2: 19:30.
Astelehena, 3:
19:30, 22:00.

Jugando con fuego

Larunbata, 1: 17:00.
Igandea, 2: 17:00.

*Oharra: Plano jaialdia dela eta, otsailaren 8ko asteburuan ez da emankizunik egongo.



SINOPSIA



1917

Zuzendariak: Sam Mendes. **Gidoia:** George MacKay, Dean-Charles Chapman, Richard Madden, Benedict Cumberbatch, Colin Firth...

Herrialdea: Britainia Handia (2019). **Generoa:** Drama, belikoa.

Iraupena: 119 minutu.

Sinopsia: Garrantzia handiko misioa bi soldadu britainiarrentzat. Erlojuaren aurkako lasterketan, Lehen Mundu Gerran, aurkariaren eremuan murgildu beharko dute triskantza handia saihestea eragiteko.

Andoaingo MINTZALAGUNAK BIDE LAGUNAK behar ditu!

Gero eta gehiago dira euskara praktikatu nahi duten herritarrak. Elkartuko al zinateke astean **ordubetez** eurekin?

Zer gutxiago, euskararen erabilera indartzeko?

Bide lagun



Anima zaitetz! Deitu eta egitasmoaren berri emango dizugu.

Mintza lagun 943 300 831 - 943 132 658
www.mintzalagun.org
andoain@mintza.eus



ZORION AGURRAK



ANDOAIN
Axel del Moral Eraso
Zorionak Axel!
9 urte iada!!! Ene... Jarraitu beti bezain alai eta jator, muxu pila!!! Asko maite zaitugu. Etxekoak.



ANDOAIN
Uxue, Unai eta Jon
Zorionak hirukote!
Urtarrilaren 18an Unai eta Jon 2 urte bete zituzten eta otsailaren 4ean Uxuek 5 urte beteko ditu. Zoragarriak zarete! Asko maite zaituztegu! Muxu goxo bana! Etxekoak.

TELEFONO ZENBAKIAK

URNIETA
Bertan: 943 008 000.
Udaltzaingoa: 092 / 943 008 000.
Ertzaintza: 943 538 840.
Osasun zentroa: 943 006 680.

ANDOAIN
Ataria: 943 300 830.
Udaltzaingoa: 943 300 819.
Gizarte Zerbitzuak: 943 304 343.
Osasun zentroa: 943 006 670.

ODOL EMAILEAK

URNIETA
Urtarrilak 31, ostirala
18:30-20:30.
Anbulatorioa.



GUARDIAKO FARMAZIAK

ANDOAIN
Larunbata 1 eta igandea 2
PAJARES: Zumea kalea, 20.
943 592 629 Andoain.

URNIETA
Larunbata 1 eta igandea 2
TANCO: Idiazabal, 39.
943 550 942 Urnieta.

GAUEZ
ALDABE: Perkaiztegi, 8. Antziola.
943 336 022 Hernani.

Kantuan aritzeko hitzordu bikoitza Urnietan

Kantazaun ekimena, larunbatean. Santa Ageda bezperako kantu erronda, datorren asteartean

Erredakzioa URNIETA

Kantazaun taldeak euskarazko kantagintza hauspotu nahi du. Horretarako, hilean behin kantu kalejirak egin ohi dituzte. Urrutira joan gabe, larunbat honetarako saio berezia egingo dutela

iragarri dute. Kantuan aritzeaz gain, elkarrekin bazkaltzeko aukera baliatuko baitute. Eguerdiko 12:00tan hasita kantuan ibiliko dira. Lekaion bazkalduko dute, eta bazkalostean Iriondo eta Lete gogoan hartuko dituzte.

Santa Agedako kantu erronda

Otsailaren 4an, kantu taldea 18:00etan irtengo da Lekaioetik. Udalak jakinarazi duenez, "parte hartzaile guztiei baserritarrez jantzita joatea eskatzen zaie". Parte hartzaileek kantua dohitzeko aukera izango dute, hurrengo bi entseguetan. Urtarrilaren 30ean, ostegunarekin, iluntzeko 20:00tan entsegua egingo dute. Eta otsailaren 4an, arratsaldeko 17:30ean hasita azkena. Bi hitzorduak Lekaion izango dira.



lazko argazkia, Santa Ageda kantu erronda egin zenekoa. AIURRI



Lehen mailako jokalariai Urnietara hurbildu ziren. AIURRI

Bidasoa eskubaloit taldeko jokalarien bisitaldia Urnietara

Lehen taldeko jokalariekin batera, hizlarien artean aritu zen Juan Mari Morales fisioterapeuta urnietarra

Erredakzioa URNIETA

Asobal ligan puntan dabil Bidasoa eskubaloit taldea, bereziki Jacobo Cuetara entrenatzaileak taldearen ardura hartu zuenetik. Salesiar ikastetxeko kultur asatera klubeko ordezkaritza zaba-

la hurbildu zen. Jokalarien artean ziren Iker Serrano, Kauldi Odriozola, Leo Renaud, Thomas Tesoriere eta Paco Barthe jokalariai. Eta, haiekin batera, taldearekin harreman estua duen Juan Mari Morales Urnietako

fisioterapeuta. Moralesek kirola egitearen garrantzia nabarmendu zuen, osasuna zaintzeko ezinbestekoa baita.

Kirola ikasgai ona dela gaineratu zuten jokalariek. Bizitzarako ikasketa garrantzitsuak eskuratzeko baliagarria dela nabarmendu zuten. Besteak beste, diziplina, sakrifizorako gaitasuna edota norberaren zaintza pertsonala garatzeko.

Ikastetxeko arduradunentzat, "lezioz beteriko hitzaldia" izan zen

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoaren emanaldia Basteron

Andoaingo bi saioetara jendetza hurbildu zen, "Bizi dantza" ikuskizuna DVDn grabatzeko baliatu baitzen

Erredakzioa ANDOAIN

Pailazoek erakarmen maila handia izaten jarraitzen dute, eta larunbat arratsalderako antolatutako bi saioak ikusleak bete ziren. Bizi Dantza azken ikuskinarekin, Euskal Herrian ba-


rrena dabilta. Asteburuan Andoaingera hurbildu ziren, emanaldi berezia eskaintzeko. Izan ere, bi saioen grabazioekin zuzeneko DVDa grabatu zuten. Hurrengo hilabeteetan argitaratuko dute.

Emanaldia grabatu egin zutenez, hainbat gonbidatu berezi izan zituzten. Erreteriatik dantzari talde handia hurbildu zen, pailazoekin batera hainbat koreografiatan parte hartu baitzuten. Eta, emanaldiari amaiera emateko, Yogurinha Boroba kantaria gonbidatu zuten. Haren "Sentipenak askatu" kantua eskaini zuten.

Ohiko duten bezala, pailazoek ehunka muxu banatu zituzten agurtzera hurbildu ziren familien artean.



Pailazoek gonbidatu ugari izan zituzten taula gainean, emanaldian zehar. AIURRI



Kantu liburuxka 2 0 2 0

